



# BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (I)

## 20 URTEKO NAFAR EUSKALDUN HORI NAFARROAKO EUSKARAREN EGOERA ZENBAIT GAZTE EUSKALDUNEN BIZIPENETAN

**Paula Kasares**

*Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle elkartua*  
Helbide elektronikoa: paula.kasares@unavarra.es

BAT soziolinguistika aldizkariaren 20. urteurrena dela eta argitaratu den ale berezi honetarako Nafarroan euskarak 1990etik egun artio izan duen bilakaera azalduko zuen artikulua eskatu zidaten. Euskararen egoerari itxura hartzeko datuak hasi nintzen biltzen (zentsu-erroldak, inkestak eta azterlan soziolinguistikoak) eta, lehen kolpean, horiek guztiak ohiko azalpen demolinguistiko eta soziofuntzionalaren arabera emateari ekin nion. Lehendabizi hizkuntza gaitasunaren, erabileraren eta jarreraren gaineko datuek erakusten duten joera diakronikoa eta gero gizartearen hizkuntza erabilera esparruetan euskarak betetzen duen tokiaren argazki sinkronikoa. Bide horretatik apailatu nuen, luze samar gainera, eskatutako idazkia. Baina egindakoak asebate ez eta betiko azalbide (makro eta kuantitatibo) horretatik nola aldendu hasi nintzen gogoan erabiltzen. Hala bada, dokumentazio iturrietan soilik oinarritu beharrean, duela 20 urte sortutako gazteen euskararekiko bizipenak ere aztertzea otu zitzaidan. Hau da, euskararen egoeraren bilakaera azaldu eta egungo egoeraz hausnartzeko hitzunez hizkuntzarekin eratu dituzten harremanek irudikatzen duten deskribapen mikrosoziolinguistikora jo dut. Nafarroako Unibertsitate Publikoko 52 ikaslek, gehienek 20 urtekoek, aitortutako hizkuntza bizipenak izan ditut

lan honen 2. atalean azalduko dudanaren oinarri<sup>1</sup>. Gazteek 2010-2011 ikasurtean Irakasle Diplomaturako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza espezialitateetako 3. maila ikasten dute euskaraz. Jatorriari dagokionez, 51 nafarrak dira, eremu guztietakoak<sup>2</sup>.

Beraz, metodologikoki artikulu honen lehen mailako informazioa ez dago lagin adierazgarri batean oinarrituta, ez eta kasu azterketa sakon batean ere. Aldiz, kontuan hartu dut gazte horiek talde naturala osatzen dutela, ez direla ikertzaileak espresuki bilatutako berriemaileak, Nafarroa osokoak direla eta euskararekin eratu duten harremana ez dela nolana hikoia, Foru Komunitatean osoki euskaraz ikas daitezkeen unibertsitateko bi titulazioetako ikasleak baitira. Horregatik iruditu zait interesgarria gazte horien euskararekiko bizipenak eta adierazitako erabilera ohiturak, jarre-  
rak eta hautuak deskribapen mikrosoziolinguistikorako baliatzea. Bide horretatik maila makro eta mikroko datuak uztartu eta haien osagarritasuna bilatu dut. Izan ere, hizkuntza baten egoera norbanakoen hizkuntza-hautu eredu koherenteek epe luzera izan duten emaitza soziala bada (Fishman 2000, Fasold 1984), euskara zertan den azaltzeko euskaldunek mintzaira horrekin eratu dituzten harremanetan arakatzeko bide metodologiko emankorra izan daiteke.

## 1. NAFARROAKO EUSKARAREN AZKEN 20 URTEOK AZALPEN MAKRO-KUANTITATIBOETAN

### *Nafarroa demografikoki antzaldaturia*

1990ez geroztik Nafarroako demografian aldaketa nabarmenak gertatu dira. Hasteko, 20 urteotan nafarrak 527.318 izatetik 636.038 izatera pasatu dira (%21eko hazkundea). Populazioa handitzeaz gain, gizartearen zahartze-prozesua, jaiotza-tasak behera egin izana eta immigrazioa dira nafar jendartearen mudantzarik eragingarrienak. Izan ere, 1990etik 2010 bitartean adinekoen multzoa %65 inguru handitu da eta 15-25 urte bitarteko gazteena aldiz, ia laurden bat gutxitu. Bertzalde, bitarte horretan Foru Komunitatean bizi diren etorkinak nafarren %2 eskas izatetik %15 inguru izatera pasatu dira<sup>3</sup>. Halere, atzerriko populazioak ez du banaketa homogeneorik: Mendialdean etorkinak %3,4 baizik ez diren bitartean, Iruñerrian %8,6 dira eta Tutererrian %11,6 (Zenbaiten artean 2009). Oro har, populazio gaztea da eta horrek azken urteotan apal-apal zegoen jaiotza tasari positiboki eragin dio.

Nafarroako biztanleen banaketari dagokionez, nafarren erdia baino gehixeago Iruñerrian bizi da (*eremu mistoan*, batez bertze %8,3 euskaldun), heren luzea hortik behera (*eremu ez euskaldunean*, %1,9 euskaldun) eta hamarren bat eskas Mendialdean. Nafar euskaldunak, hala kopuruan nola ehunekoan, Mendialdean, legez ezarritako *eremu euskaldunean* daude kontzentratuta (%60 euskaldun), baina azken bi hamarkadetan Mendialde euskaldunak Nafarroa osoarekiko zuen pisu erlatiboa txikituz joan da. Egun, 10 nafarretatik 9 eremu erdaldunetan (euskaldunak %20 baino gutxiago

---

**1990ez geroztik Nafarroako demografian aldaketa nabarmenak gertatu dira. Hasteko, 20 urteotan nafarrak 527.318 izatetik 636.038 izatera pasatu dira (% 21eko hazkundera). Populazioa handitzeaz gain, gizartearen zahartze-prozesua, jaiotza-tasak behera egin izana eta immigrazioa dira nafar jendartearen mudantzarik eragingarriak.**

dutenetan) bizi dira eta 0,5 baizik ez euskaldunak %50 baino gehiago direnetan (Eusko Jaurlaritza 2008).

Aldaketa demografiko horiek euskarari nola eragin dioten galdeginda, erantzuna ez zait positiboa iruditzen. Alde batetik, etorkinen etorrerak populazioa handitu du eta, euskaldunek ere kopuruan gora egin badute ere, Nafarroako populazio osoarekiko duten pisu erlatiboa ez da horren neurrian hazi. Gainera, immigrazioaren aitzineko hizkuntza politikari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ezin neurri ez du hartu etorkinen etorrera handiak bertako mintzaira demolinguistikoki eta soziofuntzionalki ahul ez dezala eta euskara *nafar berriei* integratze bide gerta dakiela. Bertze alde batetik, ikusiko dugun bezala, azken hamarkadetan hizkuntzaren berreskurapen demografikoa belaunaldi gazteetan gertatu da nabarmenen baina jaiotza tasa apalagatik euskaldunen hazkunde demografikoa ez da espero zitekeen bezain handia izan. Euskaldunen banaketa geografikoak ere ez du alde jokatu Mendialdeak, bertako euskarari eutsi dion eta euskaldun gehien biltzen duen eremuak, pisu demografiko erlatiboa galdu baitu eta gainera, eremu erdaldunarekin hiri-eremuekin bereziki duen zerbitzu eta jarduera ekonomikoen morrontza ez da txikitu.

### 1.1. Euskararen bilakaera demolinguistikoa

Zentsu-erroldetako euskararen ezagutza datuei erreparatuta, azken 20 urteotan gertatu da datuak ditugunez geroztik lehen aldiz nafar euskaldunen ehunekoak gora egitea. 1991 bitarteko portzentajeek beherako joera historiko etengabea erakusten zuten. Orduz geroztik ordea, hiztunak galtzeko joera hori gelditu zen eta, doi-doi bada ere, irauli ere. Egun nafarren %10–12 dirateke euskaraz ongi egiten dutenak. Euskaldunen ehunekoak Nafarroako eremu guztietan egin du gora, nahiz eta indar beraz ez egin. Aspaldian euskara galdu zuten eremu erdaldunduetan 1986an euskaldunen portzentajeak txikiak ziren eta hamabost urte beranduago nabarmenki berretuta agertzen dira. Gainera, 2001eko zentsuak 15 urtetik beherakoendako (orain 25 urte baino gazteago direnendako) ematen dituen datuak kontuan hartuta, euskararen ezagutzaren emendatzea belaunaldi berrietan bereziki gertatu dela da nabari.

1. taula

Nafarroako euskaldunen ehunekoaren bilakaera 1986etik 2001 bitarteko zentsu-erroldetan eta 2001eko zentsuko 15 urte behekoen artean, eremuka

	1986	1991	1996	2001	2001eko <15
Nafarroa	10,15	10,22	10,9	12,1	21,3
Ipar-mendebaldea	61,7	63,5	63,0	64,5	80,9
Pirinioaldea	10,5	10,7	12,0	14,9	43,3
Iruñerria	5,9	6,1	7,1	9,1	19,9
Estellerria	4,9	4,0	5,0	7,6	24,1
Eki-erdialdea	1,8	2,0	3,3	4,4	12,5
Erriberagoiena	0,3	0,3	0,7	0,9	2,0
Tutererria	0,4	0,4	0,7	0,8	1,7

Iturria: Gros (2007)

Berreskuratze orokor hori gora-behera, Nafarroako Gobernuak 2003an eta 2008an egindako inkesta soziolinguistikoek (2004, 2009) kezka emateko moduko datu batzuk eman dituzte. 15 eta 24 urte bitarteko gazteak hartuta, 2003an *eremu euskalduneko* %86,4 zen euskalduna eta 2008an aldiz, %78,3. *Eremu mistoan* ere gazteen multzoa euskaldunagoa zen 2003an 2008an baino. Ez dakigu datu horiek etorkinen etorrera handia soilik ote duten arrazoi. Dena dela, hurrengo inkestek belaunaldi gazteen euskalduntze bilakaera argitu beharko ligukete. Ez dezakegu ahantz hizkuntza baten egoera demolinguistikoa, hein handi batean, Administrazio Publikoek hizkuntza hori babesteko hartutako erabakiei lotuta dagoela. Euskararen kasuan lotura hori aski argi dago. Euskal Autonomia Erkidegoko hazkundearen eta Ipar Euskal Herriko galeraren erdibidean, Nafarroakoa egoera *ez aitzin ez gibel* dugu<sup>4</sup>, hizkuntza txikia egongaitz eta ahul dagoela salatzen duena.

Euskararen ezagutzaren emendatzean ikusi dugun bilakaera positiboa ez dugu halere, erabilera atzeman. Euskararen erabilera neurtuari dagokionez, 1989tik lau urtetan behin egin diren kale neurketak ditugu. 2. taulak erakusten du Nafarroako euskararen erabilera orokor apala (%6,6) hamazazpi urteotan ia ez dela mugitu. Gauzak horrela, erratea dago nafarrek, batez bertze, kalean egiten dituzten solasen %93,4 erdaraz izaten direla.

**Zentsu-erroldetako euskararen ezagutza datuei erreparatuta, azken 20 urteotan gertatu da –datuak ditugunez geroztik lehen aldiz– nafar euskaldunen ehunekoak gora egitea.**

2. taula

Nafarroako kale neurketek emandako euskararen erabileraren ehunekoak, adin taldeka

Kale neurketa	Nafarroako erabilera osotara	Hurrek	Gazteek	Helduek	Adinekoek
1989	6,5	9,8	5,3	5,3	5,8
1993	6,7	9,9	5,9	5,5	5,5
1997	6,8	9,2	5,7	6,0	6,4
2001	6,6	8,6	6,1	5,9	5,3
2006	6,6	8,5	6,9	5,5	5,8

turria: Kasares (2007)

Euskararen erabileraren *aurretabiderik* ez horretan argi-itzalak daude. Ezagutza eta erabilera datuei erreparatuta, euskara kuantitatiboki egoera oso ahulean dago Nafarroan, baina erabilera datuak tematiak dira eta behin eta berriz erakusten dute nafarren talde bat badela txiki-txikia izan da ere euskara bere egunerokoan erabiltzen duena eta denboran erabilera horri eutsi egin diona. Azken kale neurketek emandako zantzurik baikorrena gazteen erabileraren igoera da (+ 0,8). Halere, hazkunde hori Iparmendebaldean (Baztanen eta Donezteben), Pirinioaldean (Agoitzen), Estellerrian (Lizarran) eta Tutererrian (Tuteran) gertatu da, baina ez Iruñerrian. Hiriburuan haur eta gazteen adin taldeetan ez da erabileraren garapen positiborik izan. Iruñerriko erabilera daturik makurrena, hain zuzen ere, gazteen artean dago, %1,8 (ezagutza %27,2 izaki. Nafarroako Gobernuaren 2006). Horrek Iruñerriko haur eta gazte euskaldunen erabilera baldintzen eta aukeren gainean gogoeta egitera bultzatu beharko gintuzke (ikus Kasares 2007).

Erabilera aitortuari dagokionez, *IV. Inkesta Soziolinguistikoak* gazte nafarren erabileraren joera aldaketa positibo nabarmendu badu ere, bat etorri da kale neurketen emaitza orokorrek: 1991etik 2006ra “euskararen erabilera ez da ia aldatu ehunekoan” (Eusko Jaurlaritzaren 2008).

## 1.2. Euskararen estatusa eta Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika

Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren arloan bi garai bereizi behar ditugu euskararako ekimenak, hala politikoak nola sozialak, markatu dituztenak. (1) *Lehen garai bat, 1986tik 1999 bitartean, Euskarari buruzko Foru Legea zenbait arlotan garatzea ekarri zuena*. Euskararen aldeko politika garbirik inoiz egin ez bazuen ere, orduko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak sustapen epelaren zenbait lan bederen burutu zituen. 1999an elebitasuna sustatzearen aldeko jarrera instituzionala aldatzen hasi zen eta hala UPNk nola PSNk euskararen eta haren normalizazioaren kontrako diskurtso politikoa ozpindu zuten. (2) *Hizkuntza politika instituzionalaren bigarren garaia, murriztailea, 2000.ean hasi eta egun artio dirauena*. Euskararen erabileraren kontrako erabakiak agerikoak batzuetan, ezkutuagoak

bertzeetan— ez dira gelditu. Arau murriztaileek helegite eta gaitzespen ugari izan dute erantzun. Hizkuntza Gutxituetarako Bulego Europarra Nafarroako hizkuntza politika Europaren kontrako eredutzat definitzera iritsi zen<sup>5</sup>.

2000. urtetik nola edo hala euskararen hedapena gelditu nahi zuen diskurtso instituzional horrek bi jomuga nagusi izan ditu, nire irudiko: (1) *euskararako motibazio pragmatikoa ahultzea* euskaldunen hazkunde demografikoa gelditzeko; eta (2) *euskararako motibazio identitarioetarako lekurik ez uztea* euskararen eskaera eta aldarrikapen soziala politikoki zuzena ez den jarre-rra politiko-zibikotzat agertzeko: marjinala, nafartasunaren mehatxagarria, susmopekkoa eta bake soziala gaiztotzen duena (Kasares 2003).

2007an Nafarroako Gobernuak euskararekiko hizkuntza politikaz arduratzeko Euskarabidea sortu zuen. Baina erakunde berria sortzeak ez du hizkuntza politikan aldaketarik ekarri eta bere bidez, hain zuzen, eragin ditu Foru Gobernuak inoizko murrizketarik handienak euskararako diru laguntza publikoetan (euskarazko hedabideei, aisialdi programei, toki entitateetako zerbitzu tekniko eta kultura jardueri...). Bertzalde, Nafarroako Parlamentuan euskararen estatusaren inguruko eztabaida etengabea izan da. Behin eta berriz errepikatu dira Legeak ezarritako zonifikazioa aldatzeko edota bertan behera uzteko ekimenak. Halere, 2010 artio ez da aski indar politikorik bildu zonifikazioa ukitu ahal izateko, aldaketa txikitxikia izanda ere: Iruñerriko lau udalerrri (Aranguren, Beraskoain, Galar eta Noain Elortzibar) *eremu ez euskaldunetik eremu mistora* aldatzea.


Foru Gobernuaren hizkuntza politikan gibel urrats garbiak antzeman badira ere, toki entitate anitzetan ordea, azken 20 urteotan euskararen erabilaren aldeko lan handia egin da hizkuntza normalizaziorako zerbitzu teknikoak sortuz, euskara udal administrazioan ohikoa eginez, euskara ordenantzak onartuz edota plangintzak aitzin eramanez.

Hezkuntza arloari dagokionez, euskarazko eskolatzea eremu erdaldunduetako euskaldunen lehen haztegia izan da, bai eta Mendialdeko euskararen berebiziko euskarria ere. Nafarroako irakaskuntza publikoko zein pribatu eta hitzartuko datuak ditugunez geroztik (1988tik) hona, Haur eta Lehen Hezkuntzan D ereduaren bilakaera hagitx positiboa izan da (+13,4), lurraldearen gehieneko ikastetxe publikoetan eskaintzen ez dela kontuan hartuta. Nafarroa osoan hauta daitekeen A ereduak izan du igoerarik aipagarriena (+18,3), *eremu ez euskaldunean* bereziki. D eta A ereduaren hazkuntza Gren jaitsiera ekarri du (-36,4), oraindik eredu nagusia izaten segitzen badu ere.

**2007an Nafarroako  
Gobernuak euskararekiko  
hizkuntza politikaz  
arduratzeko  
Euskarabidea sortu zuen.  
Baina erakunde berria  
sortzeak ez du hizkuntza  
politikan aldaketarik  
ekarri eta bere bidez, hain  
zuzen, eragin ditu Foru  
Gobernuak inoizko  
murrizketarik handienak  
euskararako diru  
laguntza publikoetan  
(euskarazko hedabideei,  
aisialdi programei, toki  
entitateetako zerbitzu  
tekniko eta kultura  
jarduerei...).**

### 3. irudia

Nafarroako hezkuntza ereduaren bilakaera, Haur eta Lehen Hezkuntza, 1988tik 2010era



Azken ikasturteotan Nafarroako Hezkuntza Departamentuak ingelesaren irakaskuntza indartzeko politika sendoa abiatu du, hasieran *British* ereduaren bidez eta gero Hizkuntzen Tratamendu Integratua (TIL) dela medio. Horrek ez luke berez euskarazko irakaskuntza ahuldu behar (ikas-tola batzuek aspaldian hasia dute ingelesa indartzeko bidea), baina Nafarroako Gobernuak ingelesa erabili du nazioarteko hizkuntza baten eta euskararen arteko dilema faltsua sortzeko, atzerriko hizkuntzaren indartzea euskararekin bateragarri ez eginez eta, anizteta, gurasoak euskara ala ingelesa hautatzeko kinkan paratuz. Hiru ikasturtetan TIL eredia %4,7 izatera iritsi da, horren barnean A eta D ereduko lerroak ere badaudela.

Immigrazioaren aitzineko hizkuntza politika estrategikoari dagokionez, Nafarroako Gobernuak atzerriko jatorria duen populazioa euskarara erakarri eta etorkin belaunaldi gazteak euskaraz bertakotzeko deus ere ez du egin. Izan ere, 2000-2001 ikasturtean etorkinak nafar ikasleen %2,3 ziren eta 2006-2007an aldiz, %11,3. Atzerriko jatorria duten ikasle horien %85 G ereduaren eskolatzen da, %13-14 A ereduaren eta %1-2 baizik ez D ereduaren (Zenbaiten artean 2009). Azken hamarkadan Nafarroan gertatu den aldaketa demografikoak luzera bertako hizkuntza ahulerako zer ondorio ekarriko duen oraindik ikuskizun dago. Horrek kezkatuak, toki entitateek eta herri ekimenak kanpainak eta programak burutu dituzte etorkinak euskararen aldera hurbiltzeko.

### 1.3. Euskararen erronkak XXI. mendearen hasierako Nafarroan

Euskara kuantitatiboki hizkuntza ttipia da, gutxienezko hiztun masa kritiko behar du ziurtatua eta horretarako bere hazibide nagusiak izan direnak sendotuak eta, aukera balitz, unibertsal bihurtuak beharko lituzke. Kuantitatiboki hazteko bide horiek euskarazko eskolatzea eta helduen euskalduntzea izan dira. (1) Hezkuntzari dagokionez, sistema publikoko D ereduari eragiten dioten muga geografikoak aipatu ditugu eta ohartaraztekoa da Hezkuntza Departamentua bulkatzen ari den TIL ereduaren hedapenaren inguruan dagoen kezka, oraindik ez baitakigu ikasleen euskal-

duntzean zer emaitza emanen duen. Eskolatzek hizkuntzari lotutako zeregin funtsezkoak ditu, hala bertako hizkuntz(ar)en ezagutza orokortzeko nola atzerriko hizkuntzen ikastea ahalbidetzeko. Bi helburu horiek uztargariak dira eta Administrazioak biekiko arduratsu jokatu beharko luke. (2) Helduen euskalduntzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ez du esparru estrategikotzat jo: ez du helduak euskalduntzeko plan berezirik egin, ez izan litezkeen eskaera guztiei erantzuteko bitartekorik jarri, ez eta motibazio kanpainarik antolatu ere. Azken 20 urteotan ikasle kopurua eta ikasteko erritmoa apaldu dira eta, neurri handi batean, helduen euskalduntzea eskal hiztun berriak sortzeko indarra galduz joan da (Aleman 2010).

Euskara kualitatiboki oso gizarte esparru jakinetan da hizkuntza ohi-koa eta bertze esparru anitzetan ia ez du tokirik. Adibidez, Hezkuntza da euskara ohiko samarra den esparruetako bat, baina horretan ere ez homogeneouski. Maila akademikoetan gora egin ahala euskararen eskaintza txikiagoa izaten da. Alde horretatik, esparru horretan unibertsitatea da euskarak estrategikoki ziurtatua beharko lukeen arloa. Unibertsitatea irakaskuntzaren ibilbidearen azken maila da, euskara hezkuntzan sartze prozesuari zentzu eta dimentsio pragmatiko osoa ematen dion goi urratsa. Gurean Nafarroako Unibertsitate Publikoak du horretan zeregin handia. NUP 1987an sortu zen eta harrezkero euskararen estatusaren eztabaida publikoan protagonismo berezia izan du. Nafarroako euskaldunoi prestakuntza aukera berberak ematea eta, oro har, elebitasun soziala begi onez ikusten ez dutenek NUPen euskaraz ikasi ahal izateari mugak jarri nahi izan dizkiote, nahiz eta NUPeko ikasleen artean gero eta euskaldun gehiago izan. Azken urteotan egoerak hobera egin du hala euskarazko eskaintza akademikoan nola irakasle euskaldunen kopuruan.

Gerora begira, euskararako estrategikoak izanda ere horietatik at gertzeko arriskua duten esparruak merezi du aipatzea: teknologia berriak eta hedabideak, bertzeak bertze. Biak funtsezkoak dira egungo (eta etorkizuneko) komunikazio bideetan euskarak bere tokia izan dezan; eta bietan da nabarmena Nafarroako Gobernuaren ekimen positiborik eza. Hedabideei dagokienez, azken bi hamarkadetan herri ekimenak sortutako irrati eta aldizkariak ugaltu dira Nafarroa osoan, Mendialdean batik bat. Euskarazko telebista ere sortu dira<sup>6</sup>. Baina Foru Komunitate osorako euskarazko hedabide azpiegitura publikorik ez dago eta EAeko EITB kate publikoek betetzen dute, hein handi batean, hutsune hori. Azken urteotan kate pribatuak berretu dira baina batek ere ez du Nafarroako Ikus-entzunezko Kontseiluak ezarritako euskarazko kuota betetzen. Bertzalde, 2010ean gertatu den itzaltze analogikoaz geroztik, Nafarroan ezin da ETB Lurreko Telebista Digitalaren bidez hartu eta lehenagoko molde analogikoan segitzen da ETB1 eta ETB2 ikusten, noiz artio argi ez dagoela (ETB3, haur-gazte katea, ez da Nafarroan hartzen). Alde horretatik, orain duela 20 urte baino makurrago daude nafar euskaldunak, telebista kateak gero eta gehiago diren bitartean, Nafarroan telebista euskaraz ikusi ahal izatea kolokan dago.



**Gerora begira,  
euskararako  
estrategikoak izanda ere  
horietatik at geratzeko  
arriskua duten esparruak  
merezi du aipatzea:  
teknologia berriak eta  
hedabideak, bertzeak  
bertze. Biak funtsezkoak  
dira egungo (eta  
etorkizuneko)  
komunikazio bideetan  
euskarak bere tokia izan  
dezan; eta bietan da  
nabarmena Nafarroako  
Gobernuaren ekimen  
positiborik eza.**

Hala bada, Nafarroako Gobernuak ez du bere egin bertako hizkuntza-  
ren biziraupena ziurtatzeko eta nafar euskaldunei euskaraz bizitzeko bal-  
dintzak bermatzeko duen erantzukizuna, bertze edozein erakunde publi-  
kok bertako hizkuntza komunitatearekin egin ohi duena.

## 2. GAZTE EUSKALDUNEN BIZIPENAK EUSKARAREN EGOERARAKO HURBILPEN MIKRO-KUALITATIBOAN

Atal honetan 51 gazte nafarren euskararekiko bizipenak aztertuko ditut. Gazteen adierazpenak bi eremu nagusitan banatuta badaude ere, irizpidea ez da geografiko hutsa izan. Gazteen lekukotasunak antolatze moduak adierazpenen koherentzia eta batasuna nabarmendu nahi izan ditu, baina bizipen horien heterogeneotasuna eta osatzen duten *continuuma* estali gabe.

### 2.1 Mendialde euskaldunean

Ipar-mendebaldea<sup>7</sup> da bertako euskara bizien gorde duen Nafarroako ere-  
mua eta Euskal Herriko euskaldunenetako bat (Leitzaran-Urumealdea,  
Malerreka, Bortziriak, Baztanaldea, Mendebaldeko ibarrak eta Aranatzal-  
dea, batez ere). Horretan, euskara demografikoki kontzentratua eta belau-  
nez belau jarraitua da. Hau da, euskaldun jendea ehunekoan nagusi da  
eta euskara historikoki gurasoengandik seme-alabengana eten sozialik  
gabe transmititu izan da. Eremu euskaldun horretakoak dira gure gaztee-  
tatik 16. Batzuk herri oso euskaldunetan haziak dira eta, haiek hala adiera-  
zita, euskara etxean ikasi dute, zenbait kasutan eskolan hasi artio “euskara  
bertzerik” ez zekitela. Bertako euskalkiak elikatu ditu gazte horiek umeta-  
tik, anitz bidetan egin ere: etxekoen eta belaunaldien arteko harremanetan,  
lagun arteko jolasetan, herriko bizimoduan oro har... Inguruko eguneroko  
hizkuntza izateak balio positiboak lotu dizkio euskarari. Gazte horiek eus-  
karan daude errotuak, euskara ohikoa, erabilgarria, beharrezkoa eta, ondo-  
rioz, erraza zaie. Hau da, haien hizkuntza da: familia jatorriari lotua dute-  
na, haien identitatea hobekien adierazten duena, kultura taldeari atxikitze-  
ko egokientzat jotzen dutena, beren burua ziur eta eroso sentitzen duten  
mintzaira, atsegin eta gozamen iturria zaiena eta harrotasunez ahoratzen  
dutena, zenbaitetan hizkuntza kontzientzia garbi batez. Hori izan ohi da  
herri oso euskaldunetan gazteen euskarazko hizkuntza sozializazioa, etxe-  
ko giroan euskara eta erdara izan dituzten gazteak badirela ere<sup>8</sup>:

[Goizueta]... Txiki-txikitatik euskaraz soilik hitzegin didate (...) Oso zaila egiten  
zait euskaraz dakien norbaitekin gazteleraz edo beste hizkuntzaren batean min-  
tzatzea (...) Hobekien kontrolatzen dudana hizkuntza da euskara eta bera maita-  
tzen erakutsi didate, bai etxean eta baita herrian ere. Euskara maitatze horretan,  
bizi naizen inguruneak eragin handia izan du, oro har, herrian bertan ere oso  
estimatua baita hizkuntza hau.

[Ituren]... Nire ama-hizkuntza euskara denez, txikitatik euskaraz solastu izan dut  
beti etxean, eskolan, lagunartean. Izan ere, Ituren herri euskalduna izanik, eus-  
kara ez den bertze hizkuntza batean gutxitan hitz egiten dut (...) Nire bizitzan

komunikatzeko tresna nagusia euskara da, eta hortaz harro nagoela ez dut ukatuko. Beraz, niri euskarak “aunitz ematen dit” eta gaur egun gauden egoera soziopolitiko kontutan hartuz, euskaraz solasten jarraituko dut, gure hizkuntza izkin guztietan aldarrikatuz.

[Lesaka]... Nire gurasoek erraten dutenez, eskolan hasi arte ez nekien euskara bertzerik (...) konturatzen naiz [erdara] kosta egiten zaidala, batez ere nire ideiak idatziz ematerako orduan. Ahal dudan guztietan euskaraz egiten dut, klasean, herrian, lagunekin... Amatxi eta ataxirekin hitz egitea gustatzen zait, nahi gabe bertze tonu bat ematen baitiot nire hitzei.

[Almandoz]... Betidanik egin dut euskaraz, hori bai, Baztango euskara da ikasi eta erabiltzen dudana, gurasoak hangoak direlako. Gero eskolara hastean euskaraz batua ere ikasten joan nintzen. Hizkuntzak leku handia hartzen du nire bizitzan, edozein gauzatarako behar duzulako (...) ahal bada nirea den euskara erabiltzen saiatzen naiz, askoz seguruago ikusten dudalako neure burua, eta errezago ateratzen zaidalako.

[Arizkun]... Txikitatik nire etxean euskaraz hitz egin da, nire aiton-amonek euskaraz hitz egiten zuten baita guraso eta nire aizpak ere. Hortaz, nik ezagutzen nuen lehenengo hizkuntza euskara izan zen. Hizkuntza hau, garrantzitsua da niretzat, gainera eguneroko bizitzan, familian, lagunekin, lanean... erabiltzen dut eta erabiltzea asko gustatzen zait.

[Amaiur]... lagunekin betidanik euskaraz hitz egin izan dut. Etxean aldiz, aitarekin gaztelaniaz hitz egiten dut, ttikitari ez baitzieten euskaraz hitz egiten irakatsi (Elizondon). Aitaxi-amatxikin normalean euskaraz hitz egiten dut, eta ama eta anaiarekin bi hizkuntzetan, egoeraren arabera. Bertzalde, Elizondon lagun gehienekin gaztelaniaz aritzen naiz, bertan Amaiurren baino guttiago hitz egiten baita euskaraz.

Aurreko lekukotasun guztietan, batean izan ezik, herri oso euskaldunetako (%80tik gora euskaldun duten herrietako) gazteen familiak *euskaldunbeteak* dira, hau da, belaunaldi guztietan kide euskaldunez osatuak. Gazteek euskarazko sozializazio osoa izateko baldintzak izan dituzte familian, gizarte ingurune hurbilean, eskolan eta herrian. Hizkuntzaren gizarte esperientzia osoa eta etengabea izan zaie (nahiz eta erdara bertze hainbat bidetatik usu sartu: hedabideetatik, kultura produktuetatik, eremu erdaldunduarekin dituzten harremanetatik...). Baina *familia euskaldunbeteak* urri agertuko zaizkigu herri oso euskaldunetatik at. Euskararen galera-berreskurapen historikoaren seinale dugu, hain zuzen ere, familiak hizkuntza aldetik gizarte gune ez homogeneoak izatea. Halako adibideak herri oso euskaldunetan ere baditugu, Amaiurko kasuan bezala. Gazte amaiurtarrak Elizondoren eragin erdalduntzailea aipatu du, familiaren osaketaz gain adinkideekiko harremanetan ere. Izan ere, Mendialdean euskararen errealitatea askotarikoa da. Historikoki, arrazoi desberdinengatik, eremu euskalduneko zenbait herri erdaldundu ziren (Altsasu, Lekunberri, Bera, Doneztebe, Elizondo, Irurita eta Oronoz, batik bat) eta eremu euskaldunaren gune erdalduntzailatzat jokatu dute. 1970 aldean, gure gazteen gurasoen nerabezaroan, herri erdaldundu horietan haur eta gaztetxoek ez ohi zuten euskaraz bat ere egiten, ez eta jakin ere hainbat kasutan (Sánchez Carrión 1972). Anitz familian euskararen transmisioa eten zen eta, horren ondorioz, herri horretakoak diren guraso dezentek ez daki euskara. Familia anitzetan euskararen transmisioaren eten-jarraipen istorioak ditugu: belanez belaneko hizkuntza galera eta berreskurapena hiru belaunalditan.

**Gure gazteak sortu zirenerako (1990erako) euskarazko irakaskuntza erabat zabaldua zegoen herri erdaldundu horietan, bai ikastolen bai sistema publikoaren bidez, eta horri esker kalekume erdaldunak euskaldundu ziren. Oraingo haur-gazteak anitzek euskaldunagoak dira duela 20 urtekoak baino.**

[Bera]... Euskara txikitatik ikasi dut etxean hizkuntza horretan solasten nindutela, eta ondoren eskolan B ereduari ikasi dut (...) nere kasuan inguruan ditudan pertsona ia gehienak euskaraz dakite eta beraz ia beti euskaraz solasten dut (ez euskara batuan, noski). Euskarak nere bizitzan leku garrantzitsua betetzen du batez ere hizkuntza hau erabili ahal izateko eta bermatu ahal izateko zaittasun handiak izan ditudalako. Ondorioz, hizkuntza honen debeku eta mugen aurrean sentitzen dudan amorrugatik oso harro nago gurasoek irakatsi nauten hizkuntzaz eta ondoren eman didaten bidea jarraitzeaz.

[Elizondo]... Txikitari, lehenengo 2 urtetan gutxi gorabehera, etxean ez nuen euskararekin harreman askorik izan, nire gurasoek ez baitzekiten euskaraz. Hala ere, nire amatek noizpeinka hitz batzuk euskaraz botatzen zizkidan (berak euskaraz dakielako), nahiz eta normalean gaztekeraz solastu (...) eskolara joaten hasi baino lehen (...) urte bat pasatu nuen haurtzaindegian eta hor, nire ikaskideekin batera, hasi nintzen euskaraz solasten. Ordutik, ikastolan ikasitako euskararekin, eskolan nahiz eskolatik kanpo egiten dut euskaraz: kuadrillako lagunekin, barriekin, lanekoekin, ikaskideekin, herriko jendearekin... Erran daiteke proportzio berdinetara erabiltzen dudala dakizkidan 2 ama hizkuntzak (...) nire ahizpek euskaraz solasten dutela, nahiz eta lauek euskaraz jakin, baina hori ohitura gauza izango da (gurasoekin betidanik hala solastu dugulako).

[Elizondo] Beti bertan bizi izan naiz eta ama ere bertakoa bada ere, etxean ez dugu euskaraz hitz egiten (amak ahaztua duelako). Hiru urtekin D ereduari matrikulatu zidaten (...) Herrian jende askorekin erabili dezaket euskara, hala ere, gaztekeraz ere asko erabiltzen dut (etxean, familiarekin...). Lagunekin bi hizkuntzak erabiltzen ditut (...) normalean gaztekeraz gehiago erabiltzen dudala eta errazagoa egiten zaidala, nire ama hizkuntza baita.

[Elizondo]... euskara asko solasten da eta beraz, eskolan hasi aurretik euskaraz hitz egiten nuen jada. Nire gurasoek ez dute euskara ongi menperatzen baina kalean, ataxi-matekin... euskaraz egiten zidaten. Horrela, euskara menperatzen eta gehiago solasten hasi nintzen, batik bat, eskolan hasi nintzenean. Ordutik, kalean, lagunekin, familiar batzuekin, unibertsitatean, eskolan... euskaraz solasten dut (...) gaztekeraz asko hitz egiten dudala; eremu publikoan (ostatueta, dendetan...) gehien erabiltzen den hizkuntza baita, eta horrek eragin handia duela uste dut.

[Etxarri Aranatz]... Gurasoen ama hizkuntza euskara izan ez arren, ikasteko ez dut arazorik izan, izan ere, Etxarriko biztanlego gehienak euskaraz mintzatzen da bere egunerokotasunean. Ikastolan ikasi nuen eta lagun taldean ere euskaraz aritzen ginen nagusiki (...) etxeko giroa erdalduna izan ohi dut baina helduz joan ahala ahizparekin euskaraz hitz egiteko ohitura hartu dugu, askotan gurasoak ere aurrean daudelarik. Askok maite dut euskara, asko baloratzen dut ondo hitz egiten dutenen euskara hori (...) Halere, nik oso arrunt mintzo naiz, baina saiatzen naiz gutxinaka-gutxinaka zertxobait hobetzen bederen (...) euskararekin konprometuz kontzientea dudala eta ahalik eta esparru guztietan erabiltzen saiatzen naizela.

[Lekunberri]... Etxean gaztekeraz hitz egiten zuten nire gurasoek (euskara ez baitzekiten), eta nik euskara, ikastolan ikasi nuen (...) egia da ere gehiago erabiltzen ahalko nuela. Azkenaldian euskara gehiago erabiltzeko esfortzu bat egiten ari naiz, nire harremanetan garrantzia gehiago emanez eta eguneroko bizitzan maiztasun handiagoz erabiliz (...) bihotzean dudana hizkuntza euskara da; benetan maite dut eta horren alde borrokatu nahi dut, izandako heziketarik eta nire inguruarengatik batzutan kosta egiten bazait ere.

Mendialdeko aurreko gazte horiek ez dira herri hain euskaldunetan hazi (Etxarri Aranatz %75-80 inguru da euskaldun, Beran eta Elizondon %70-75 eta Lekunberri %60-65). Berako gazteak ez bertezek ez dute euskara gurasoengandik ikasi. Hizkuntza aldetik familia *euskaldun ez osoak* ohi dituzte (belaunaldi guztietako kide euskaldunak eta erdaldunak osatuak): gazte gehienek aitaxi-amatekin euskaldunak eta guraso euskara (ongi) ez dakitenak izaten dituzte. Hau da, herri horietan belaunaldien arteko hiz-

kuntza lotura soziala ez da erabat hautsi. Gurasoekin euskaraz egin ez badute ere, euskara hurbila izan zaie ingurua, gutxi-asko, euskalduna baita. Ingurune euskaldunak bete egin du euskarak etxean zuen hutsunea eta —gazteek beraiek hala adierazita— aitatxi-amatxi, barride edo auzo-lagun, haurtzain eta halakoekin izan zuten euskararekin harreman goiztiarra eskolan hasi baino lehenago ere. Horiek bezalako kasuek agerian uzten dute hizkuntza sozializazioan familiak *stricto sensu* duen eragin mugatua eta aldiz, hizkuntza ohiturak ezartzeko ingurune hurbilak duen indarra. Gazteen euskararen bizipena ez da eskolara mugatu eta euskaraz aritzeko esparru, harreman eta aukerak eman dizkien herrian hazi dira. Nahiz eta etxean erdaraz egin, euskaraz sozializatu dira ingurune euskalduna eta eskola euskaraz izan baitituzte. Etxarri Aranazko gazteak ahizparekin etxean egiteko ohitura hartu du, hau da, inguruak etxeko erabilerari eragin dio, hiztunak hizkuntza ohitura kontzienteki aldatu nahi izan duelako, noski. Elizondoko kasuetan, bai eta Amaiurko gaztearen kasuan ere, gune erdaldundu eta erdalduntzailearen eragina nabarmena da eta gazteek adinkideekin (izan anai-arreba, izan adiskide, izan lankide) dituzten harremanetan erdarak du leku handia.

Gure gazteak sortu zirenerako (1990erako) euskarazko irakaskuntza erabat zabaldua zegoen herri erdaldundu horietan, bai ikastolen bai sistema publikoaren bidez, eta horri esker kalekume erdaldunak euskaldundu ziren. Oraingo haur-gazteak anitzez euskaldunagoak dira duela 20 urtekoak baino. Mendialdeko herri erdaldundu horietan bi hamarkadetan euskararen errealitatea aldatu da eta oraingo gazteek euskararen “normaltasunean” hazi dira: ingurune gutxi-asko euskalduna, ikasketa guztiak euskaraz, euskara hedabideetan —hala tokikoetan nola nazionaletan—, euskarazko eskaintza kulturala... Halere, Lekunberrin, Beran, Donezteben, Elizondon... erdararen erabilera sozialaren ereduak segitzen du nagusi izaten helduen artean eta gizarte bizitzaren arlo anitzetan gazteek beren adinki-deekin erdaraz egiteko joera izaten dute.

Mendialdeko bertze eskualde batzuetan (Aezkoan, Ultzaman, Atezten, Odietan, Arakilen eta Burundako zenbait herritan, bertzeak bertze) euskararen familia bidezko transmisioaren etena gizartearen orokorragoa izan zen eta bortitzagoa hizkuntza ordezkapen prozesua. Horietan gaur egun zaharrek eta haur-gazteek baizik ez ohi dakite euskara. Adinekoek bertako euskara eta haur-gazteek eskolan ikasitakoa. Familia bidezko transmisioa eten zen garaiaren arabera gehiago edo gutxiago dira bi adin talde euskaldun horien artean dauden belaunaldi erdaldunak eta, ondorioz, belaunaldi euskaldunen arteko lotura errazagoa edo zailagoa izan daiteke. Galerak galera, bertako euskaldun adinekoak egoteak belaunaldi gazteen hizkuntza-aren hautematerako garrantzia du. Eskualde horietan euskararen berreskurapena, funtsean, euskarazko eskolatzeak ahalbidetu du, euskarak duen estatus ofizialak lagundurik. Haur-gazte gehienak euskaldunak badira ere, erabilera soziala oso txikia da eta erabiltzeko esparruak mugatuak:

**gazteen euskalduntzearen  
sorburuan gurasoen  
nahikaria egon ohi da  
beti: euskara seme-alabei  
etxean irakatsi dietelako  
edo haiendako  
euskarazko eskola  
hautatu dutelako.  
Bakanetan baizik ez dute  
gazteek beraiek  
euskaltegira jo euskara  
ikastera (eta halakoetan  
1990ean baino lehenago  
sortutako gazteak dira).**

[Iraizotz]... (Sunbillako [amaren herriko]) euskara da nire ama hizkuntza (...) Larraintzarko eskolan hasi nintzenez, arraro sentitu nintzela gogoratzen dut, euskara batua hitz egiten baitzen (...) orain nire euskara baztan, malderreka edo bortziri aldekoekin erabiltzen dut eta bestela euskara batua (...) nire euskara asko maite dut eta ahal dudan guztietan hitz egiten saiatzen naiz. Familia eta lagun asko euskaldunak izanik ez zait asko kostatzen euskaraz hitz egitea.

[Alkotz]... Nire aitaren familia euskalduna da, baina nire amarena ez. Hortaz, nire etxean euskara aitarekin erabili izan dut beti (...) Ultzaman giro euskalduna dugu baina jendeak ulertu arren, erabilpen eskaxa dago. Euskaldun zaleak gara gazte gehinok, baina gero, erabiltzeko orduan, aunitz kostatzen zaigu, ohitura falta dela eta. Gure ikastetxe publikoan euskaraz ikasten dute haurrek, baina bertatik ateratzean, erdara da nagusi. Horrek kezkatzen eta haserratzen nau, baina gure garaian gauza bera gertatzen zela aitortu behar dut.

[Altsasu]... Oso txikia nintzenetik hasi nintzen euskararekin harremanetan, 2-3 urterekin nire gurasoek ikastolan apuntatu zidaten. Etxean erdaraz hitz egiten dugu, nire gurasoak euskara ez dakitelako. Euskara asko gustatzen zaidan hizkuntza bat da, baina azken urte hauetan asko galdu dudala nabaritu dut, bakkrik eskolan erabiltzen dudalako, eta hori aldatzea gustatuko litzaidake.

Euskararen egoera higatuago dagoen eskualde horietan euskaldunen dentsitatea %50etik behera dago (Ultzaman [Alkotz eta Iraizotz] %50 inguru euskaldun eta Altsasun %20-25). Aurreko herrietako hiztunen bizipenekin antzekotasun handiak badira ere, Ultzama eta Altsasuko gazte horien adierazpenetan hasten dira sumatzen eremu erdalduneko gazteek maiz azalduko dituztenak: euskaraz egiteko ohitura falta dute, egitea kostatzen zaie, hizkuntza gaitasunari eusteko zailtasunak dituzte eta euskara galtzeari beldur diote.

Ikusi dugun bezala, Mendialdea —*eremu euskalduna*— ez da euskararako eremu homogenea. Herri euskaldunak daude, *familia euskaldunbeteak* eta haurtzaroan etxe-auzoko giro euskaldun petoa izan duten gazteak. Baina *familia euskaldun ez osoak* ere badira, bertikalki —belaunez belaun— euskararen eten-jarraipenaren haustura-loturak izan dituztenak eta horizontalki —belaunaldi berekoen artean— euskara dakitenak eta ez dakitenak dituztenak (bikotekideen artean, adibidez). Eremu euskaldunean aspaldian erdaldundutako herriak ere badira oraindik beren inguruan eragin erdalduntzailea dutenak (Elizondo adibidez). Oro har, azken 20 urteotan euskararen egoerak hobera egin du, belaunaldi gazteak aurrekoa hobetu du eta horretan familia ez ezik, ingurunea ere (eskola bereziki) funtsezko eragingarriak izan dira. Gure gazteak bezalaxe, Ipar-mendebaldeko 25 urtetik beherako gehien-gehienak euskaldunak ditugu (Leitzaran-Urumealdean, Malerrekan eta Bortzirietan batik bat, ia %100) eta euskaraz egin dituzte ikasketa maila akademiko oinarrizkoak. 1. atalean aipatu bezala, kale neurketek eta inkesta soziolinguistikoek Mendialdeko gazte horien euskararen erabilera positiboki nabarmendu dute, gazte anitzek adinkideekiko harremanak euskaraz eratu baitituzte. Euskal gazteen hizkuntza erabilerari eragiten dioten faktoreen gaineko ikerketa batek (Soziolinguistika Klusterra et al. 2009) iradoki duenez, faktore horien arteko elkarreragina konplexua bada ere (maila indibidualen, mikrosozialean eta makrosozialean), agerikoa da haurtzaroko hizkuntza bizipenek eta ohiturek, elebidu-

nen hizkuntza gaitasun erlatiboak eta hizkuntzaren pertzepzioek, bertzeak bertze, duten garrantzia. Faktore horiek guztiak, hein handi batean, txikitako hizkuntza sozializazioari lotuta daude. Alde horretatik, Mendialde euskalduneko gazteek izan dituzte euskarazko sozializaziorako baldintzarik hoberenak eta, antza, horri esker dira egun euskal hiztun aktiboagoak. Hizkuntza egoera pribilegiatua da gazte haiena. Pribilegiatua diot nafar euskaldun gehienak ez baitira halako giro euskaldunean bizi.

Baina egoera on hori ahul bezain hauskorra da. Mendialdeko herri koskorak edozein aldaketa demografikoren eraginbera dira eta euskarak gizarte harremanetan bere lekua sendotu behar du. Kezkak ere kilikatzen nau: Elizondon adibidez, eremu euskaldunean dagoen herri erdaldundu eta erdalduntzaile batean, joan den ikasturtetik ikastetxe publikoan hasten diren haurrek ezin izanen dute orain artiko D ereduan ikasi, euskara-gaztelania-ingelesa hirueleko TIL ereduan hasten baitira. Hau da, oraingo haurrek ez dute izanen gure gazteek izan duten eskolaren eragin bete positiboa eta horrek luzera ez dakigu zer ondorio ekarriko duen.

## 2.2. Iruñerrian eta Nafarroako gainerako eremu erdaldun(du)etan

Hasieran erran dugun bezala, nafar gehien-gehienak (%90) Iruñerrian, batik bat, eta hortik beherako eremu erdaldunetan bizi dira. Horietan, oro har, euskararen erabilera soziala apal-apala da eta soziofuntzionalki leku oso eskasekoa (zerbitzu publikoetan, administrazioan, aisialdian, hedabideetan, kultura eskaintzan...). Hori horrela, nola egin dira euskaldun eremu horietakoak diren gure 35 gazteak? Gehienak eskolaren bidez, kontuan hartuta zenbait kasutan eskolatze hori oso goiz (2 urtez) hasi zela. Gure gazte anitz (eta beren anai-arreba eta lehengusu-lehengusinak) beren familiako euskaldun bakarrak dira. *Familia euskaldunberrituak* genituzke horiek, kide euskaldunak azkeneko belaunaldian baizik ez dituztenak. Kasu horietan gazteek ez ohi dute inoiz egin euskaraz etxean, ez eta anai-arreba euskaldunekin ere. Halako egoerak, inguruneak ez badu laguntzen, muga handiko hiztunak izaten ditu emaitza, ikusiko dugun bezala.

Gutxi batzuek, ordea, euskara (ere) familia hizkuntza izan da. Gutxitan *familia euskaldunbeteak* ditugu, baina izan badira eta Mendialdeko herriren batean izaten dute jatorria. Sarritan *familia euskaldun ez osoak* daude, guraso (edota familia alde) bakarra euskalduna dutenak. Aita edo ama euskaldun berria izatea gazteek positiboki baloratu ohi dute. Guraso euskaldun bakarreko familiei dagokienez, duela hiruzpalau hamarkadetan gertatzen ez zena gaur egun ohikoa da. Hau da, nabarmena da azken urtetan euskara ere seme-alabei transmititzearen aldera izan den aldaketa (Eusko Jaurlaritza 2008). Bertze batzuetan, gazteek aipatzen dutena da guraso erdaldun(ar)en nahia eta interesa beren seme-alabak euskaldunak izan daitezen. Hala bada, gazteen euskalduntzearen sorburuan gurasoen nahikaria egon ohi da beti: euskara seme-alabei etxean irakatsi dietelako

**Hau da, gazte askorendako euskara bizipen etena edo ez jarraitua izan da, bizipen atomizatua eta batzuetan, eskolara mugatua. Hori horrela izanda, euskara eremu akademikoari lotzen diote hala bizipenetan nola erabilera ohituretan.**

edo haiendako euskarazko eskola hautatu dutelako. Bakanetan baizik ez dute gazteek beraiek euskaltegia jo euskara ikastera (eta halakoetan 1990ean baino lehenago sortutako gazteak dira).

Nafarroako eremu erdaldunetako gazteak euskalduntzean euskarazko irakaskuntzaren funtsezko ekarpena aipatuta, ezin dugu atzendu D eredu ez dela Nafarroa gehieneko hezkuntza sistema publikoan eskaintzen eta herrian berean ikastolarik ez duten familiek berebiziko ahaleginak egin behar izaten dituztela beren seme-alabak euskaraz eskolatzeko. Zangozako gure gaztearen adierazpena horren lekuko da: arreba ezin izan zen bera bezala ikastolan euskaldundu.

[Iruñea]... Euskara etxean ikasi dut familia gehiena euskalduna dudalako, beraz, nire ama hizkuntza da. Gurasoekin, izeba osaba gehienekin, lehengusuekin eta amatxi-aitatxiek hitz egiteko erabiltzen dut. Hala ere, beti bizi izan naizenez Iruñean, lagun gehienekin gaztelaraz mintzatzen naiz nahiz eta denok euskaraz ikasi dugun. Ohitura hori hausten goaz baina batzuetan zaila egiten zait pertsona batzuekin euskara hutsean hitz egitea ohitura faltagatik...

[Iruñea, familia Leitzañan, Ezkurran eta Basaburuan]... Familia osoaren ama hizkuntza euskara da. Ezin dezaket esan euskara ikasi dudarik, txiki-txikitatik hitz egin baitut. Iruñean bizitzeak euskara pixka bat galtzea ekarri digu aita, ama, ahizpa eta niri, hala ere, familiako guztiekin euskaraz mintzatzen gara, izan ere baditut lehengusu batzuk erdaraz ez dakitenak.

[Barañain]... Ama euskalduna dut baina aita ez, beraz, txikitatik bi hizkuntzak entzun izan ditut. Hala ere, jende gehienarekin, klasean ez ezik, erdara da erabili izan dudarik hizkuntza gehienbat. Nire osaba-izebak ere euskaraz hitz egiten dute baina hauekin gehienetan ere gaztelaniaraz hitz egiten dut. Orain pena ematen dit euskaraz gehiago ez hitz egitea, eta txikia nintzenean gehiago erabili izan banu, orain ere hainbat jende gehiagorekin hitz egingo nukeela pentsatzen dut (osabak, izebak, lehengusu-lehengusinak...).

[Iruñea]... Txikitatik euskararekin harreman zuzena izan dut, aita beti euskaraz hitz egiten bait zidan. Ondoren eskolan zehar eta gaur egun unibertsitatean ere euskara eguneroko mintzatzen dut. Hala ere, betiko lagunak euskaraz ez dakite eta etxean gutxitan mintzatzen dut. Familian, aitaren aldetik euskara izaten da gehien erabiltzen den hizkuntza, eta harekin euskaraz aritzen naiz, baina amaren aldetik kontrakoa gertatzen da. Euskara oso garrantzitsua da nire bizitzan, hori horrela izanda, etorkizunean eskola euskaldun bateko andereño izatea gus-tatuko litzaidake eta pixkanaka nire euskara maila hobetuz joan.

[Tafalla] Euskara jaino nintzenetik ezagutzen dudala esan daiteke, aitek betidanik hitz egin baitidalako euskaraz. Hortaz, ikastolan ikasteaz eta erabiltzeaz gain, etxean ere eguneroko edo momentu oroko zerbait izan da orain arteko bizitzan. Amak ez daki euskaraz hitz egiten, baina aita eta bioi entzuteaz ohituta dagoenez, esan daiteke asko ulertzen duela. Nik euskara nire ama hizkuntzatzat hartzen dut, gaztelaniarekin batera. Baina lehenengoari garrantzi handiagoa ematen diot. Hala eta guztiz ere, eta hau kontraesana izan daiteke, ez dut beharko nukeen bezainbeste erabiltzen. Nire lagunak euskaldunak dira gehienak, baina argi dago Tafallan gaztelera askoz gehiago entzuten dela eta ohituta gaude gure artean gaztelaraz aritzera; ez dakit ingurukoek kutsatu gaituztelako den edo ez, baina gehienetan gaztelaraz aritzen gara. Gurasoen herrian, aldiz, gehiagotan mintzatzen naiz euskaraz; eta euskaraz dakiten lehengusu-lehengusina guztiekin ere hortan saiatzen naiz beti.

[Iruñerria]... Ama gaztaroan euskaldundu zen, aldiz aita, erdalduna izan da betidanik (hitz eta esaldi asko ezagutzen baditu ere). 5 urte arte Leitzañan bizi izan nintzen, ama hantxe irakasle baitzen. Euskara jaso nuen bai amarengatik bai inguruagatik. Geroztik Iruñerrian bizi gara eta euskara gutxi erabili izan badut ere D ereduko ikastetxe publikoan hezkuntza jaso nuen. Ohitura ahalegina baino pisu gehiago duenez, kalean espainera erabiltzen ohi dut.

## HUTSEN ZUZENKETA

BAT aldizkariko koordinatzaileak ohar honen bitartez zuzendu nahi ditu 76. zenbakian argitaratutako Paula Kasaresen “20 urteko nafar euskaldun hori: Nafarroako euskararen egoera zenbait gazte euskaldunen bizipenean” artikuluan izandako hainbat akats.

115. orrialdeko 18. lerroan *euskara* izan ordez *Euskara* behar du; 19. lerroan *Iruñean* izan ordez *Iruñan*; 22. lerroan *txikitatik* izan ordez *txikietatik*; 31. lerroan *Hala ere* izan ordez *Ala ere*; 33. lerroan *aritzen* ordez *haritzen* behar du.



[Burlata]... Euskararekin izan dudana harremana nahiko estua dela esan dezaket, nire lagunak, anai eta familiako zenbait osaba-izeba eta lehengusinekin euskaraz aritu naizelako eta gaur egun arte euskaraz ikasten jarraitzeko aukera izan dudalako. Hala ere, denbora aurrera doan heinean gutxiago erabiltzen dut euskara, nire lagunak gaztekeraz ikasten dutelako eta gaur egun, ohitura faltagatik, ez dugu euskaraz hitz egiten...

[Iruñea]... etxean gurasoek ez dakite euskaraz, beraz ikastolan ikasi nuen, horregatik batez ere euskara ikasketekin erlazioa duten egoeretan erabiltzen dut, eta aisialdian gutxitan, lagun guztiek ez dakitelako euskaraz, baina etxean gurasoek, batez ere amak, txikia nintzenetik beti saiatu dira euskara sustatzen, ipuinak euskaraz oparitzuz, pelikulekin, kartekin... eta horiek ere euskara pixka bat ikasten, eta horregatik agian, naiz eta gustatuko litzaidakeena baina gutxiago erabili, asko maite dut euskara eta, naiz eta gustatuko litzaidakeena baina gutxiago erabili, asko maite dut euskara eta etorkizunean nere bizitzan leku handiagoa betetzea gustatuko litzaidake eta hori da magistaritza ikasteak duen abantailerako bat, euskaraz ikasteko eta lan egiteko aukera ematen duelako, hizkuntza urtekin galdu beharrean, alderantziz, euskararen gehiago trebatuz eta esan dudana bezala euskaraz neurri handiago batean bizitzeko aukera emanez...

[Berriozar]... Nire gurasoek argi zuten euskaraz ikasiko genuela (...) Etxean, gurasoek gehiena ulertzen dute eta zerbait komunikatzeko gai dira, baina normalean neba eta bion artean aritzen gara. Gazteboia nintzenean ohartu nintzen gure herrian euskarak duen garrantzia eta hasi nintzen nire harremanak euskalduntzen (edo euskaraz egiten). Gaur egun, euskalgikoa irakaslea naiz eta ni saiatzeaz gain, badakit nire harremanetan eragiten dudala eta ingurukoak ere saiatzen direla...

[Iruñea] Gurasoek euskara ikasteari garrantzia eman zioten hasiera hasieratik, eta horregatik euskarazko haur eskola batean sartu ninduten (haiek hizkuntza hau ezagutzen ez badute ere). Ditudan lehengusu gehienek euskaraz dakite-nez, denak elkartzaren ginean hizkuntza hau erabiltzen guren komunikatzeko. Orain ere, elkartzaren ginean euskara erabiltzen dugu. Momentu honetan, eta ikaskuntza ere euskaraz egiten dudanez, hizkuntza honen garrantzia oso altua da, nahiz eta gero, lagunekin erdaraz aritu (karreraz kanpoko gehienek ez dakite euskararik). Uste dut euskara, eta orokorrean euskal kultura galtzen ez dela utzi behar (nahiz eta oso zapalduta egon arren)...

[Lizarra]... Txiki-txikitatik euskara jakin izan dut, ikastolara joaten bainintzen. Baina oso euskalduna ez den herri honetan ezin dut une guztietan erabili (...) ikastolatik aterata, geroz eta gutxiago erabiltzen dut, zenbait harremanetan hizkuntza hau ez dakitelako eta ohitura faltagatik. Hala ere, euskaraz hitz egiten dut, ahal dudanean behintzat gure hizkuntza hau galdu behar ez delako.

[Lizarra]... bertako ikastolan bi urterekin hasi nintzen. Han bereganatu dut hizkuntza. Heldu naizen heinean, eta nire bizitza osoaren zehar ere euskarak nahiko toki eduki du gure etxean eta nire harremanetan. Alde batetik, ikastolan hasi nintzenean aitak ere euskaltegian ikasteari ekin zion, lanetik ateratzean, eta egia esan horrek harrotzen ninduen txikitan (eta gaur egun ere). Bestalde, nire harremanetan, egia esan sarritan zaila egiten da herrian euskaraz bizitzea...

[Iruñea]... Euskara ikastetxean ikasi nuen, nire gurasoek ez dakitelako, aita erriberakoa da eta amaren familia andaluziarra, hala ere, etxean euskal kultura nahiko sartuta egon da. Gaur euskara leku akademikoa eta soziala okupatzen du (...) Etxean ia ez du tokirik bakarrik arrebarekin, eta ez beti, baina familiako beste kide batzuekin lehengusu-lehengusinekin bai erabiltzen dut, dakitenekin noski.

[Atarrabia]... Nire inguruak (...): familia, lagunak, kirola... erdaldunak dira, baina euskaraz dakiten pertsonekin euskaraz aritzen naiz.

[Iruñea]... Euskararekin izan nuen lehenengo harremana eskolan izan zen. Gurasoak erdaldunak dira (...) bakarrik eskola giroan erabiltzen dudana hizkuntza da euskara. Lagunak euskaldunak dira eta euskaraz egiteko saiakerak egin ditugu, baina beti arrakasta gutxirekin.

[Iruñea]... betiko lagunekin (nirekin ikastolara joan direnak) euskaraz mintzatzen naiz edo behintzat saiatzen gara. Batzuk ahaztu dutelako, lotsa ematen dielako... Mutil-lagunarekin gauza berdina gertatzen zait. Euskaraz gehi mintzatzea gustatuko litzaidake baina txikitatik etxean erdaraz bizi naizenez, gaur egun kos-

**Euskara galtzeari beldur psikologikoa diote. Ez hizkuntza desagertzearen beldurra, hizkuntza beraiek galtzeari diote beldur. Euskara galtzeko, ahazteko arriskua sentitzen dute. Izan ere, euskarak dituen hiztun galerak beraien koadriletan ikusi dituzte: txikitan euskaraz eskolatutako gazte anitzek, harreman informaletan erdaraz egiten badute, ikasketei erdaraz jarraitzen badiete eta erdaraz hasten badira lanean, euskara galtzera ere iritsi daitezke, hizkuntza behin ere ez erabiltzeagatik.**

ta egiten zait. Hala ere, egunero euskaraz bizitzea saiatzen naiz, gutxienez ahal ditudan lekuetan (unibertsitatean, lagunekin...). Pena izango zen hainbeste maitatzen dudana hizkuntza hau galtzea.

[Iruñea] Haurtzaindegian ikasi nuen, nire gurasoek eta familiakoek (aiton-amonak, izeba-osaba...) ez bait zekiten. Orain arte eskolan erabili izan dut euskara. Eta bakarrik eskolan. Nahiz eta gelakideek, anaiak, lagunek... euskaraz jakin, ez dut haiekin askotan erabiltzen haiekin dudana harremana gazteleraz izan bait da beti. Nire barnean gaztelerak betetzen du leku gehiena, zeren eta klaseko lanak egiterakoan eta ikasterako orduan izan ezik bestelako gauzak gazteleraz egin eta pentsatzen ditut.

[Iruñea]... Nire ama andaluziarra izan arren, eta nire aita nafartarra izanik, beren seme-alabek euskaraz ikastea erabaki zuten (...) etxean ez nuen inolako harremanik euskararekin eta nire anaiak euskara jakin arren berarekin euskaraz ez naiz inoiz aritzen. Bai ikastetxean eta institutuan euskaraz ikasi arren, klasekideok mantentzen genuen harremanan beti erdaraz aritzen ginen. Euskara egunero erabiltzen hasi naizenean unibertsitatea izan da.

[Iruñea]... Nire bizitzan euskerarekin izan dudana harremana erabat akademikoa izan da. Nire familia osoa erdalduna da, Burgosekoa. Betidanik ikasi dut euskeraz haurtzaindegian, ikastolan, institutuan... Hala ere, soilik klasean hitz egiten nuen (eta dut) euskeraz, etxean inoiz ez dut hitz egiten euskeraz, kalean ezta ere, nire lagunekin ezta ere. Txikitan, ikastolan nengoenean errekreazioa beti erdaraz hitz egiten nuen eta horregatik maiz zigortzen ninduten. Hori dela eta, euskerari 'nazka' pixka bat hartu nion, derrigorrez hitz egin behar nuelako. Gainera, inoiz ez dut sentitu euskara nire sustraietan egon delarik. Hala ere magistraritzan euskeraz ikastea erabaki nuen, ikasketak euskerarekin harremantzen ditudalako (...) konturatu naiz izugarri kostatzen zaidala euskeraz hitz egitea, erabat deseroso sentitzen naiz euskeraz hitz egiten. Hala ere, irakasle izan aurretik konponbidea emango diot arazo honi.

[Zangoza]... ikastolan ikasi nuen 16 urte bete arte. Nire gurasoak erdaldunak dira eta nire arreba orain ez, baina txikia nintzenean ez zuen izan euskaraz ikasteko nik izan nuen aukera bera. Euskaraz ikastolan hitz egiten genuen, beti lagun artean nahiz eta irakaslerik ez egon. Dena den, beste lagun batzuk ezagutzen genituen eta hauek erdaldunak zirenez, ezin genuen euskaraz hitz egin haiek aurrean zeudenean, egokia iruditzen ez zitzaigulako. Euskaraz hitz egin ez, euskara bultzatzen genuela oso garbi geneukan, ikastolan jasotako hezkuntzagatik baina etxean jasotako hezkuntzagatik ere bai (...) Zangotzan zailagoa da euskaraz aritzeko giroa aurkitzea eta egun asko nabaritzen dut, nik beste esperientzia oso ezberdinak bizi ditudalako nire klasekoekin edo Iruñekoekin lagunekin alderatuta.

Iruñerria eta hortik beherako hiriak oso erdaldunak dira (Atarrabian %15 inguru euskaldun; Barañainen, Berriozarren, Burlatan, Iruñean, Lizarran eta Zizur Nagusian %10; Tafallan eta Zangozan %5). Hiri horietako gure gazte gehienei euskara eskolan/ikastolan ikasi izanak ondorio batzuk ekarri dizkie. Haietariko anitzendako euskararen esperientzia *uharte* moduko bat izan da: eskolan dena euskaraz, etxean ezer ez edo apurtxo bat, kalean deus ere ez, lagunekin oso gutxi... Hau da, gazte askorendako euskara bizipen etena edo ez jarraitua izan da, bizipen atomizatua eta batzuetan, eskolara mugatua. Hori horrela izanda, euskara eremu akademikoari lotzen diote hala bizipenetan nola erabilera ohituretan. Zenbait aldiz, gazteek beraiek aitortuta, eskolan baizik ez dute erabiltzen, eskolatik kanpoko harreman guztiak (familia, lagunartea, aisia...) erdaraz eratu dituztela. Iruñeko gazte batek dio euskara beretako hizkuntza akademiko hutsa dela, ez dagoela bere sustraiari edo familia jatorriari lotuta, kosta egiten zaiola, euskaraz deseroso sentitzen dela. Euskararen deserrotutako hiztu-

na dirudi, ingurune erdaldunean hazita euskararen gozatzeke aukerarik izan ez duena. Gazte horren frustrazioa hunkigarria da, areago ere jakinda bere ikasbidean euskarari behingoa eman beharrean, unibertsitatean euskaraz ikasten segitzea hautatu zuela.

Gazteek inguru soziolinguistikoaren eragin erdalduntzaile ikaragarria jasotzen dute. Zail zaie euskara erabiltzea. Gazte euskaldun horietako anitz nolabaiteko *euskaldun ezinduak* dira, erdal inguruak berak ezinduak, inguruak ez baitie bide eman euskara normaltasunez erabiltzeko eta horretara ohitzeko. Ingurune erdaldunetan erdara beharra eta ohitura da, gizarte araua orotan. Euskaraz egiteko aldiz, aukerarik ez, ohiturarik ez eta ondorioz, anitzetan, erraztasunik ere ez. Euskararen erabilera kuantitatiboki ez nahikoa eta kualitatiboki arlo bakarrekoa (akademikoa, eta ez arlo askotarikoa) izatearen ondorioz, euskara erabiltzea kosta egiten zaie gazteei. Euskara ez da haien adierazpide osoa izaten eta ez ohi dute bat-batean egiten. Adinkideekiko harreman informaletan (anai-arrebekin edo lagunekin) erdaraz egiteko ohitura ezarrita dute. Erabiltzeko zailtasunak eta adierazmen nahikoa mugatuta dute euskaraz. Horren jabe izanda, haien euskararen kalitateak kezka ematen die eta ziurtasuna kendu. Hobetu beharri egiten diote aipu behin eta berriz. Kasuren batean horixe da, hain zuzen, unibertsitatean euskaraz ikasten (Nafarroan euskaraz egin daitezkeen bi titulazio bakarrak) segitu izanaren arrazoia: euskararekin harremana izaten segitzeko eta euskara ez galtzeko modua baita. *Euskara galtzeari beldur psikologikoa* diote. Ez hizkuntza desagertzearen beldurra, hizkuntza beraiek galtzeari diote beldur. Euskara galtzeko, ahazteko arriskua sentitzen dute. Izan ere, euskarak dituen hiztun galerak beraien koadriletan ikusi dituzte: txikitan euskaraz eskolatutako gazte anitzek, harreman informaletan erdaraz egiten badute, ikasketei erdaraz jarraitzen badiete eta erdaraz hasten badira lanean, euskara galtzera ere iritsi daitezke, hizkuntza behin ere ez erabiltzeagatik. Horretaraino iristen da inguruaren eragin erdalduntzailea: euskararen gaitasun mailari eustea zaila gertatzeraino.

Egoera horretan aurkitzen dugu *Iruñerriko gazteen euskararen erabilera-*ren paradoxa** lirudikeena: euskaraz dakiten gazteen ehunekoa etengabe hazi den bitartean (egun %27,2 euskaldun eta %12,7 ia euskaldun. Nafarroako Gobernu 2006), euskararen erabilera gainbehera etorri da (%2,5etik 1,8ra. Kasares 2007). Gure gazteen adierazpenak irakurrita, beren adinkideekin *euskaldunez osaturiko harreman sare erdaldunak* eratu dituzte. Hau da, anai-arreba, ikaskide eta lagun euskaldunak dituzte baina erdaraz aritzeko ohitura ezarrita dute.

Erabilera eskas horren jabe dira eta euskara gehiagotan erabiltzeko ahalegin, esfortzu eta saiakerak aipatzen dituzte. Zenbait adierazpenetan jarrera kritiko horri frustrazio, etsipen edota erruduntasuna dario. Hala eta guztiz ere, gure gazteak motibatuta daude eta euskararen erabileraz kontzientzia kritikoa dute. Euskaraz irakatsiko duten maisu-maistragaiak dira eta, oro har, subjektu eraginkor gisa jokatu nahi dute beren inguruan

**Baina aztertu dugun errealitateak garbi erakusten du euskararen gizarte egoera ezin dela irizpide geografiko hutsez azaldu. Hau da, zatikatze geografikoak ez dio hizkuntzaren egoera sozialari erantzuten. Gazteen euskararekiko bizipenak hizkuntza eremu geografikoen arabera baino, ingurune soziolinguistikoen eta harreman sareen arabera azal daitezke.**

eta sare harremanetan euskaraz gehiagotan egiteko. Baina haien adierazpenak irakurrita, ondoko galdera honek asaldatzen nau: non dago hizkuntzaren gozamena?

### 3. AZALPEN MAKRO-KUANTITATIBOAZ ETA HURBILPEN MIKRO-KUALITATIBOAZ HAUSNARKETA ZENBAIT

#### 3.1. Euskararen egoeraz eta gazte euskaldunetz

Hizkuntzaren egoera eta hiztunen bizipenak uztartzeak, hau da, euskararen bilakaeraren azalpen makro-kuantitatiboa deskribapen mikro-kualitatiboa osatzeak sakontasuna eman dio azken 20 urteotako Nafarroako euskararen bilakaeraren azterketari. Arakatu ditugun gazteen euskararekiko bizipenak koherenteak dira hiztunek izan dituzten hizkuntza ingurune eta esperientziakin. Nafarroako euskararen egoera *continuum* moduan agertzen da, bai datu demolinguistikoetan bai hiztunen bizipenetan. Familia gizarte gune funtsezkoari erreparatuta, ikus dezakegu *familia euskaldunbeteak* (belaunaldi guztietan kide euskaldunetz osatuak), oro har, Mendialde euskaldunetz daudela. Ingurune oso euskaldunak ohi dituzte eta haurren hizkuntza sozializaziorako baldintza egoki eta lagungarriak. Gazte horien euskararen erabilerak gora egin du azken urteotan. Baina gazte euskaldunen erdia baino gutxiagok baizik ez du hizkuntza inguruabar aldeko horietan hazteko aukera izan. Herri oso euskaldunetatik at, euskararen galera berreskurapen prozesu historikoa gertatu den herrietan familia ez da hizkuntza gune homogeneoa izaten eta heterogeneotasuna belaunaldi berean (gurasoak, adibidez) edota belaunaldien artean (aitatxi-amatxi, guraso eta seme-alabak) agertzen da: *familia euskaldun ez osoak* (guraso bat bakarria euskalduna dutenak, kasu) eta *familia euskaldunberrituak* (kide euskaldunak azken belaunaldian baizik ez dituztenak). Eremu erdaldun(du)etako gazte euskaldun gehienek aurreko familia heterogeneo tipologia bietariko bat izan dute. Hori horrela, euskara nekez izan da familiakoen arteko erabileraren hizkuntza nagusia, hainbatetan ohikoa izan bada ere. Gainera, ingurune erdaldunetan bizi dira eta horrek eraginda, adin berekoen artean erdara izan da komunikaziorako gizarte araua. Hala bada, familiak eta auzo edo gizarte ingurune hurbilak (eskola barne) batera jotzen dute haurren hizkuntza sozializazioan. Batera, baina ez indar beraz. Haurtzaroz geroztik ingurunea gailentzen zaio etxekoari, gazteak egiten dituen hautuak direla medio. Euskararen erabilera soziala handia denean, ingurune euskaldunaren eragina familia bidezko transmisioaren hutsunea berdintzera iritsi daiteke eta, eskola lagun, haurren euskarazko sozializazioa ahalbidetu. Ingeru erdaldunetan aldiz, haurren euskararekiko bizipenak eskolari lotuta egon dira eta etxeko erabilerak euskaraz etxeko harremanetan lekua izan duen kasuetan ezin izan ohi du haur-gaztetxoaren adinkideekiko erabilera, erdaraz ezarria, euskarara erakarri. Hori gertatu ezean, gazteen ezagutza-

ren eta erabileraren artean dagoen arroilak urratzen segituko du. Ondorioa garbi dago: eremu erdalduneko hiztunendako eskola ezinbertzekoa da baina ez aski. Adinkideen artean euskaraz hasteko eskolak ez ezik eskolaz kanpoko esparru zabalak ere jokatzen du eragingarri.

Errandakoaren haritik, bada alderdi bat egoera makroaren azalpena kuestionatzen duena. Legez ezarritako hizkuntza eremuak egoteak eremu horien barneko homogeneotasun irudia sortu du, eremuen berezko koherentzia sendotu nahi duen ideologia. Baina aztertu dugun errealitateak garbi erakusten du euskararen gizarte egoera ezin dela irizpide geografiko hutsez azaldu. Hau da, zatikatze geografikoak ez dio hizkuntzaren egoera sozialari erantzuten. Gazteen euskararekiko bizipenak hizkuntza eremu geografikoen arabera baino, ingurune soziolinguistikoen eta harreman sareen arabera azal daitezke. Adibidez, Tafallan, legez *eremu ez euskaldunetan*, euskara (ere) lehen hizkuntza duten gazteak badira. Inguru soziolinguistiko hurbilak eta harreman sozialak dira erabakigarriak eta egun Nafarroan horiek ez zaizkio ezin zatikatze geografikori egokitzen. Hizkuntza legeak zedarritu eremuek hiztunak hizkuntzarekiko aukera desberdinetan paratzen ditu, hiztun anitzen aukerak zailduz (adibidez, euskaraz ikaste-koak, Zangozako gure gaztea horren lekuko).

Bertzalde, ohartaraztekoa da eremu euskalduneko eta erdaldun(du)etako gazte zenbaiten adierazpenetan euskararen egoeraren aitzinean (“debeku eta mugen aurrean”, “nahiz eta oso zapalduta egon”...) agertzen diren jarre-ak (amorrua, harrotasuna, konpromiso kontzientea, aldarrikapena). Oraindik egiteke dago Nafarroako Gobernuak azken hamarkadan egin duen hizkuntza politika murritzailak hiztunei nola eragin dien argituko duen ikerketa. Badirudi euskararen egoera horrek gazte euskalduneri, batzuk hazi diren normaltasunaren aitzinean eta bertze batzuek ezagutu duten egoera gutxiagotuaren aurrean, jarrera kritikoa piztu diela.

### 3.2 Euskaldunen belaunaldi berriez

20 urteko nafar gazte euskaldunen euskararekiko bizipenak aztertuta, eremu erdaldun(du)etan batik bat agertu den egoerak Nafarroako euskaldunen belaunaldi berriek euskaraz sozializatzeko dituzten baldintzetan arreta [eta baliabideak] paratzera bulkatu beharko luke euskararen egoera ardura lukeen edozeinen hizkuntza politika.

Nire ustez, eremu erdaldun(du)etako belaunaldi berrien euskarazko sozializazioak duen ahulgunerik larriena haur-gaztetxoek *harreman eszentrikoak* dira, adinkideen arteko harremanak, alegia (anaia-arreba, lehengusu-lehengusina, ikaskide, lankide, lagunak...). Belaunaldi bereko euskaldun gazteen artean euskara aztura bihurtzea, erabilera ohiturak euskaraz ezartzea da gakoa. Horretarako, belaunaldien arteko hizkuntza harremanak (gurasoek seme-alabekin dituztenak, adibidez) lagungarriak dira, baina ez erabakigarriak. Haurren hizkuntza sozializazioa ez da familiaren esparrura mugatzen, haurraren

**Nafarroan euskaldunak zenbakiz hazten ari dira baina euskararen erabilera oraindik urrun dago kuantitatiboki nahikoa eta kualitatiboki arlo askotarikoa izatetik.**

ingurune hurbil osoa hartzen du (auzoa, eskola, aisialdia...). Batzuetan, inguru euskalduna lagun, etxe erdaldunetako gazteak lagunetik harremanetan ez ezik etxean ere euskaraz egitera iritsi dira (gogoratu Etxarri Aranazko gaztea); edo alderantziz, etxean euskara erabiltzen ohi duten gazteei (gogoratu Iruñeko batzuk edo Tafallakoa) inguru erdalduneko komunikazio arauak zaildu egin die lagunekin euskara erabiltzea.

Edozein delarik ere gazteen jatorrizko familia (*euskaldunbetea, euskaldun ez osoa* edo *euskaldumberritua*) gazteek familia gunetik at eratzten dituzten harreman eszentrikoak euskaraz izatea da, nire irudiko, lehenetasun estrategikoa. Gazteen arteko harreman eszentrikoak (lagun taldeak, bikoteak, familia berriak...) dira bidea eremu erdaldun(du)etan ingurune (harreman sare) euskaldunak sortzeko. Fishmanek adierazi xedea gure eginez, eremu erdaldunetako gazte euskaldunek orduan bitartean izandako *modus vivendi* soziolinguistikoa atzean uztea eta bertze bat, demografikoki kontzentratua eta belaunez belau jarraitua, sortzea da helburua. Hala bada, ahalbidetu behar dena da "[Basque]-speaking young folks with additional vital opportunities for the formation of new 'Families of procreation' and for informal interaction outside of the confines of their 'families of orientation'" (Fishman 1997, 93. or.). Harreman eszentrikoak ezker-eskuin hedatuz, gazteek gizarte harreman euskaldunak, euskararen uharte moduko bizipen atomizatua gaitutiko duen sare-bilbea eratzea da bidea. Harreman eszentrikoen garrantzia inguruko egoera soziolinguistikoa aldatzeko duten ahalmenean datza.

Hori horrela, euskararen harreman sareak eratzean garrantzia duten hainbat esparrutan Nafarroan dauden defizit eta gabezia estrukturalak geratzen dira agerian: irakaskuntza, zerbitzugintza, hedabideak, aisialdia, kultura jarduerak... Nafarroan euskaldunak zenbakiz hazten ari dira baina euskararen erabilera oraindik urrun dago kuantitatiboki nahikoa eta kualitatiboki arlo askotarikoa izatetik.

## BIDE METODOLOGIKOAZ

Artikulu honetan hautatu dudan bide metodologikoa, datu makro eta mikrosoziolinguistikoen osagarritasuna, baliagarria gertatu zait eta Nafarroakoa bezalako hizkuntza egoera konplexuak azaltzeko emankorra izan daitekeelakoan nago. Datu mikro-kualitatiboek egoera makro-kuantitatiboa gorpuzteko balio dute. Lantxo honetan, eta hagitz modu xumean, frogatu ahal izan dut nire doktore tesian sakonago garatuko dudan ikerketa teknika, *glotobiografiak*, euskararen egoeraren bilakaera hiztunek euskararekin eratu dituzten harremanen bidez hezur-mamitzeko.

Nahiko nuke artikulu honek gazte nafar euskaldunei Nafarroako euskararen bilakaera ez ezik, haien hizkuntza ibilbidea eta portaerak ere hobeki ulertzen lagunduko balie. Niri bederen, haien bizipenek Nafarroako euskararen egoera kualitatiboki hobeki atzemateko balio izan didate.■

## BIBLIOGRAFIA

- Aldasoro, E. (2010). Nafarroako hizkuntza ereduaren bilakaera. Haur eta Lehen Hezkuntza, 1988 – 2010. Dokumentu argitaragabea.
- Aleman, S. (2010). Nafarroako helduen euskalduntze datuak, 1990-2010. Dokumentu argitaragabea.
- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (2008). *IV. Inkesta Soziolinguistikoa. 2006*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fasold, R. (1984). *Sociolinguistics of Society. Introduction to Sociolinguistics*. Cambridge, Blackwell.
- Fishman, J. (1965/2000). Who speaks what language to whom and when?, in Wei, L. (arg.): *The Bilingualism Reader*. London-New York-Holt, Roughtledge (89.-106. or.).
- (1991/1997). *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon-Philadelphia-Adelaide, Multilingual Matters.
- Gros, M. (2007). *Recuperación del Euskera en Navarra*. Bilbo, Euskaltzaindia.
- Kasares, P. (2003). Nafarroa eta euskara. *Jakin*, 135 (125.-128. or.).
- (2007). Euskara Nafarroako karriketan. 2006ko kale neurketaren emaitzen azterketa. *BAT*, 64 (135.-136. or.).
- Nafarroako Gobernua (2004). *Estudio sociolingüístico sobre el vascuence en Navarra. 2003. Competencia lingüística, uso y actitudes*. Iruña, Nafarroako Gobernua.
- (2006). *Estudio sociolingüístico en Pamplona y su comarca*. [sarean]. <[http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/testuak/pamplona\\_y\\_su\\_comarca\\_2006.pdf](http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/testuak/pamplona_y_su_comarca_2006.pdf)>
- (2009). *Euskararen egoera Nafarroan. 2008. Azterlan soziolinguistikoak*. Iruña, Nafarroako Gobernua.
- Nafarroako Topagunea (2007). Nafarroako Euskara Elkarteak. Aurkezpena. Txosten argitaragabea.
- Sánchez Carrión, J.M. (1972). *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*. Pamplona, Institución Príncipe de Viana, Diputación Foral de Navarra.
- Soziolinguistika Klusterra, Topagunea eta Urtxintxa (2009). *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua. Emaitzen txostena*. [sarean]. <<http://www.soziolinguistika.org/files/GazteenHizkuntzaErabileranEragitenDutenFaktoreenAzterketa.pdf>>
- Zenbaiten artean (2009). *Encuesta 2008. Inmigración en Navarra*. Iruña, UNESCO katedra Hiritartasun, Bizikidetzeta eta Aniztasunari Buruzkoa.

## OHARRAK

1. 2010eko irailaren 6an eta 7an honako hau eskatu nien: “Idatzi non eta noiz sortu zinen eta zure bizitzan euskararekin izan duzun harremana, noiz eta nola ikasi zenuen, zer leku betetzen duen hizkuntzak zure bizitzan, zure harremanetan, zure barnean”. Artikulu hau prestatzeko idazki horietaz baliatzeke aukera (eta baimena) eman izana eskertu nahi diet guztiei.
2. 52 gazteen jatorria: 16 Nafarroako Mendialdekoak dira (Alkotz, Almandoz, Altsasu, Amaiur, Arizkun, Bera, Elizondo, Etxarri Aranatz, Goizueta, Iraizotz, Ituren, Lekunberri eta Lesaka), 28 Iruñerrikoak (Atarrabia, Barañain, Berriozar, Burlata, Iruñea eta Zizur Nagusia), 7 Iruñetik beherakoak (Lizarra, Tafalla eta Zangoza) eta bakarra Nafarroatik kanpokoa, Arabakoa (Oion).
3. Espainiako estatistika institutuak, INEk, ematen dituen datu ofizialez gain egoera ez arautuan eta erroldatu gabe bizi diren pertsonak ere kontuan hartuta.
4. Euskaldunen ehuneko bilakaera positiboa izan da EAEn (24,130,1= + 6), negatiboa IEHn (26,422,5= - 3,9) eta positiboa baina oso txikia Nafarroan (9,511,1= + 1,6) (Eusko Jaurlaritza 2008).
5. “... the first substantial regression of policies for regional minority languages in EU Member State”, Bojan Brezigar, EBLUL, 2001-12-15. Sarean: <www.eurolang.net>.
6. Aldizkariak: *Ttipi-ttapa*, *Guaixe*, *Mailope*, *Pulunpe*, *Karrika*, *Xuka*, *Nabarra*, *Xapo*, *Marmari*, *Laisterkan*, *Gu Geu*, *Ekialde*, *Zorrokaria*, *Kotarro* eta *Axular*, bertzeak bertze. Irratiak: *Xorroxin*, *Euskalerrria*, *Beleixe*, *Aralar*, *Esan-Erran* eta *Karrape*. Telebistak: *Ttipi-ttapa TB* (Bortzirietan eta Malerrekan ikusten zena, 2009an itxi behar izan zuen arazo ekonomikoengatik) eta *Xaloo TB* (Baztan eta Malerrekan ikusgai (Nafarroako Topagunea 2007).
7. Nafarroako Ipar-mendebaldea: Arakil Ibarra (Arakil, Irañeta, Irurtzun eta Uharteko Arakil), Aranatzaldea (Arbizu, Arruazu, Ergoiena, Etxarri Aranatz eta Lakuntza), Baztanaldea (Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi), Bortzirietan (Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka), Burunda (Altsasu, Bakaiku, Iturmendi, Olatzagutia, Urdiain eta Ziordia), Erdialdeko Ibarrek (Atetz, Anue, Lantz, Odieta eta Ultzama) Leitxaran-Urumealdea (Arano, Areso, Goizueta eta Leitza), Malerreka (Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Labaien, Oiz, Saldias, Sunbilla, Urroz eta Zubieta) eta Mendebaldeko Ibarrek (Araitz, Basaburua, Betelu, Imotz, Larraun eta Lekunberri)
8. Gazteen aitorpenak haiek idatzi bezalaxe ekarri dituzte dokumentu honetara, akatsak zuzendu gabe.